

Ekain IRIGOIEN

ALTZATAR BAT LADAKH-EN

Ez da erraza deskribatzea hodeizko izara zuri hartatik orratz baten punta baina zorrotzagoak zituzten mendi elurtuak ikuskatzen hasi gineneko momentua. Orain denbora bat entzun nion Jodorowsky-ri –bera zela uste dut behintzat–, handiustea duen pertsona bati, Niagarako ur-jauziaren aurrean jarri, txilibitua aterarazi, eta bertan bere pixa errekatxoa botatzea gomendatuko liokeela benetan unibertso honetan betetzen duen paperaz jabetzeko, eta guri ere, halako zerbait gertatu zitzaigula uste dut abioiko leihatila hartatik Himalaiako menditzar haiek hain gertu sumatu genituenean. Ez dut esan nahi guk ikaragarritzko handiustea genuenik, baina halako bizipen batek kolpetik jartzen zaitu inurrien pareko, edo hobe esanda, inurrien azpitik, inurriak langileagoak baitira eta ez nieke errespetua galdu nahi.

Halaxe iritsi ginen, bada, Aduna, Montse, Adriá eta laurok Leh-ko aireportura, leihatila hartatik begirik kendu gabe, denak ere bertatik ikusten zenaren xehetasunik galdu nahi ez eta ezin postura aldrebesagoetan jarririk, izatea bera ez ezik, hankak ere txingurrizterainoko puntuan.

Leh Ladakh-eko hiriburua da, eta bertan ostatu hartzeko intentzioa genuen, gero bertatik, batera eta bestera, egun pare bateko bidaiak antolatzeko asmoz. Pentsatu eta egin, konturatzera hango Guest House batean utziak genituen

gure motxilak eta maletak. Eta berandu baino lehen konturatu ginen nola, lurralde honetan, denborak beste dimentsio bat hartzen duen, gure bertako lehen gosaria ateratzeko ordu pare batean zain egon behar izan genuenean. Izan ere, bertara iritsitako batek, gosaria hartzeko ordu pare bat behar duen bezala, ez baitu minutu askoren beharrik konturatzeko etxetik milaka kilometrotara dagoela eta, bertan, gauzek beste modu batera funtzionatzen dutela. Alboetara begiratu eta nahikoa izaten da hankak errekan sarturik hoteletako garbigailu bihurtu diren pertsona horiek toailak hartu eta alboan duten arrokari jo eta jo ikustea; dendetako jabeak barrura sartzeko gonbidatu eta regateoan entzutea; kaleko zapata-garbitzaileak, betuna eta zepiloa eskuan dutela, zure oinetara begiratu eta txankletak dituzula ikusi orduko penatuta sumatzea, edota karro bete ur, gora eta behera, egun guztia litroak garraiatzen pasatzen duten gizon langileei begiratzea... hauek, bai, inurrien pareko. Izan ere, hainbeste joan-etorriekin batek ez daki karroetan daramatena herrian dagoen iturri bakar hartako ur garbia den, edo beren kopetetatik eroritako izerdi gazia. Gauza ugari zitzaizkigun berri eta ezohiko sarreran bertan “On top of the world” kartela zeukan herri honetan. Kartela, noski, gasolina enpresa batek publizitate gisa jarria, baina hori ez da ezohikoa.

Ezin zerrenda luzeagoa egin nezake goizeko lauretan Aduna eta biok esnatu eta leihotik begira jarri gintuen Mesquita hartako errezorako deietatik hasi, eta kalean, zikin-zikin eginda, eskean topatzen genituen neskatila eta mutiko ezin lirainagoenganaino. Aduna eta biok goizeko lauretan esnatzeko, ezohikoa behar baitzuen, zinez, muezinak egindako dei zirraragarri hark... hain gara lotiak. Eta neska eta mutiko lirain haienak, aldiz, printzipioz hain harrigarria ez dirudien arren, bai baitzuen harrigarri egiten zuen zerbait... herri honetan –eta India osoan, oro har–, zenbat eta pobregoa izan, gero eta ederrago baita jendea. Bitxia da, baina bidaiaria osoan zehar gure artean komentatzen genuen gauzetako bat zen hura, ez baikenuen “aberatsen” artean erakargarri zitzaigun pertsona bat bera ere aurkitu –eta aurkitu bagenituen ere, bakan batzuk baino ez-, lurralde hauetan aberastasunak, barrutik usteltzeaz gain, kanpotik ere itsusituko balitu bezala. Eta hainbeste gauza bitxiren artean, nola ez, gu bezala bertara iritsitako hainbat turista, mendebaldetik etorritako jende ugari ikus baitaiteke Leh-n, Tibet-eko bizimodu eta kultura dituen eta Indiako estatuaren zati den Ladakh-eko hiriburu honetan.

Nubra Valley-ra egin genuen lehenengo irteera, eta atera aurretik ezagutu genuen lehen turista euskalduna, Joseba izenez eta Idiazabalgoa izatez. Aurretik ere ikusia genuen bidai agentzia batean, euskara hutsez, bertan egondako euskaldun batzuek utziriko ohartxo bat, baina Indiarira iritsi ginenetik orduantxe izan genuen Adunak eta biok, gure artean hitz egiteaz gain, hirugarren batekin

ere euskaraz aritzeko aukera. Ez zen denbora luzea izan, jeep-eko gidaria gure zain baikenuen, eta hortaz, berehala agurtu behar izan genuen Joseba gure Guest House-ean ongi egoten zela aholkatu ondoren. Nork esan behar zigun momentu hartan Adunak eta biok Josebaren gurasoen papera betetzen bukatu behar genuenik! Baina hori geroagorako utziko dut.

Nubra Valley-rako bidaia zoragarria izan zen. Aurretik neska madrildar batek esana zigun bertan Dalai Lamak erakustaldi bat eman behar zuela, eta duda izpirik ere egin gabe bertara abiatu ginen. Hara iristeko, munduan dagoen errepide garaientik pasa beharra zegoen, 5600 m-tik gora. Ez dakit hain goian zaudela badakizulako, edota banderatzoen moduan kokaturik dauden milaka eta milaka eskari budistengatik izango ote den, baina, gailur haietan, eskua luzatu eta zerua ukitzeko sentipena nabari dezake batek, eta ez hori bakarrik, batere ariketarik egin gabe ikaragarritzko arnas estua ere bai, zertarako engainatu. Edo guk behintzat halaxe nabaritu genuen. Zerua ukitzeko sentsazio horrek halako arnas estua sorrarazten badu, ez nuke infernua ukitzeak sorraraz lezakeen itolarria imajinatu ere egin nahi, baina beno, hori, agian, Bush jaunak kontatuko digu beste batean; ni bitartean nirera. Aurretik ere esana dut paraje hauetan denborak beste dimentsio bat hartzen duela, eta espazioak ere halaxe egiten duela esan beharko nuke. Espazioa kilometrotan neurtuz gero, eta denbora ordutan, esan beharra baitago jeep-ak momentu gutxitan gainditzen zituela 40 kilometro orduko zuloz josiriko eta amildegiz inguraturiko bide haietan, eta, beraz, bidaiak distantziaz hain luzeak ez izan arren, denboraz luze joan ohi dira. Eskerrak denbora-pasa ederrak aurkitzen genituela leihatilaz beste aldetik ikusten genituen desertuzko mendi, tontor elurtu, marmota bihurri, jak otzan, eta gainaldean barruan bezainbeste bidaiari zeramatzan autobus zahar haietan. Baita etengabe ikusten genituen militar sinpatiko haien irribarreetan ere, zergatik ez. Esan beharra baitago, halaber, Txina eta Pakistandik hain gertu dagoen lurraldea izanik, militarren kamioi eta kanpamentuak paisaiaren parte bihurtzen direla harri eta hondarrez osaturiko paraje hauetan, eta militar hauen irribarreak oasi txiki ia arimarik ere ikusten ez den bide amaigabeotan. Nork esan behar zidan niri militar batzuk sinpatiko iruditu behar zitzaizkidanik... !

Hala, bada, azkenean iritsi ginen Nubra Valley-ra. Herria jendez beteta zegoen, gehienak Dalai Lama ikustera etorritako inguruetakoa herrikideak. Bertako monasterioa jendez josia aurkitu genuen, eta gu txoratzen: txoratzen bertako monje gazteak elkarren artean bihurrikeriatan ikusita; txoratzen atarrietan zapatak kendu eta barrualdeetan zeuden mural, estatua eta apaingarriak ikusita, eta txoratzen beraien azalean jarri eta, begiratu soil batek esan dezakeenarekin, eurentzat ere bat gehiago ginela ikusita. Ladakh-era iritsi aurretik argi genuen gure bidaia bertako kultura, filosofia, monasterio eta

monjeak ezagutzeko bidaia izango zela, eta lehen kontaktu horretan izan genuen inpresioak areagotu egin zuen bertara ekarri genuen jarrera. Hala, hurrengo goizean, eta gaueko hotzak kanpadenda hartan eragindako dardarizoaren ostean, Dalai Lamak ematekoa zuen erakustaldira abiatu ginen. Segurtasun kontrolak pasa ostean bertaratu eta adi-adi jarri ginen Dalai Lamak zer esango ote zuen... baina hasi orduko konturatu nintzen ez nuela piperrik ere ulertuko. Izan ere, ezkerreko belarritik ingeleseko itzulpena sartzen zitzaidan, eta eskuineko belarrira ladakhierazkoa iritsi, eta horrek ezinezko egiten zuen nire garuneko materia gris eta neuronei zuzeneko norabidean lanean jartzea. Beraz, ulertzen ari denaren aurpegia jarri, eta inguruan neukanaz gozatzeari ekin nion. Ikaragarria da halako gertakari batek sortzen duen ikusmina. Lehen lerroetan monje pila genuen, eta hauen atzean, milaka herritar xume, zeinek, eguzkitatik babestu nahian, milaka aterki ireki zituzten, desertu haren erdian, kromatismoz beteriko lorategi artifizial bat osatuz. Ezin esan Dalai Lamaren erakustaldi hartatik kontenplazten behintzat ikasi ez nuenik...

Hortik aurrerakoa antzekoa izan zen, hori bai, laukoa izatetik bikoa izatera pasa zen gure espedizioa. Izan ere, Adriá, hamar urteko mutikotxoa izanik, bigarren egunerako aspertuta zegoen hainbeste monasterio eta monjeez, eta Montsek –bere amak- beretzako moduko bidaia antolatu zuen, Indian barrena, geratzen zitzaizkigun egunetarako. Hala, gainerakoa Aduna eta bion artean egin genuen, eta orduantxe izan genituen bidaiako momenturik ederrenak. Askotan talde murrizta izatea hobe izaten da nork bere barrua kanpora ireki eta beste jende eta pertsonekin bizipenak izateko... ordutik aurrera hasi baitzitzaizkigun guri gertakizun magiko eta ahaztezin haiek gertatzen, batzuk kontatzekoak, eta beste batzuk, aldiz, neretzat gordetzen ditudanak. Ordukoak izan ziren, adibidez, Lamaiuruko monasterioan bertako monje umeekin izaniko ordutako jolasaldia, Santi Gompa-ko monje buruak guretzat eskainitako gitarra kontzertua, edota Pangong Lake-eko gau zoragarri hark eskaini zigun izar festa, besteak beste. Baita, lehen aipatu bezala, baita Joseba gure lagunaren guraso bihurtzearena ere.

Leh-tik abiatzeko planak egiten hasiak ginen Joseba herrenka ikusi genuenean. Bederatzi eguneko trekking bat egitera zihoala esan zigun ikusi genuen azkenekoan, eta hara non, trekking-a egiten ari zela, hiru txakurrek inguratu, hozkatu, eta, ihes egin nahian, korrika hasi eta kristoren kolpea hartu zuen izterrean. Bere burua herrenka ikusirik, biharamunean geratu zen gurekin Delhi-rako bidaia egiteko, gu geu ere Delhirako bidaia prestatzen ari baikinen herrenka ikusi genuen momentuan doi. Pentsatu eta egin, hurrengo egunean hantxe ginen hirurok bazkaritan bueltako bidaia prestatzen, bazkaltzen bukatu eta Josebak ezin zuela mugitu ohartu ginenean. Korrika eraman genuen

ospitalera, hango eraikin hari ospitale deitzerik balego, jakina. Medikuek ikusi ostean, Josebak bertan ingresatu beharra zuela esan ziguten, gutxienez hiru egun, eta hori entzutean ikusi beharra zegoen gure semetxo gixajoaren aurpegia. Hala, nik goizetan zaintzen nuen, entretenitu, txorakeriak bata bestearen atzetik boteaz, hango egonaldia ahalik eta umoretsuen igaro zezan, eta arratsaldeetan, aldiz, Aduna joaten zitzaion zaintze lanetara, beste zeregin batzuetan ere murgiltzen zen bitartean: medikuekin borrokan eta kontu serioagoetan... hau guztia 40 bat gaixo bilduta zeuden gela batean, arratoiak barne. Nork esan behar zidan niri nire lehenengo semeak nik baino zortzi urte gehiago izango zituenik...! Hiru egunen ostean, Adunak aseguruarekin borroka ugari egin eta gero, Joseba abioiz Euskal Herriratzea lortu genuen.

Bidaia hartakoak ditut nik azken oroitzapen goxo eta politenak. Halako bidaiak beti izan zaizkit zoragarri, eta are zoragarriago egiten dira amaren ostean gehien maitatu duzun emakumearen ondoan eginak badira. Baina bueltak, aldiz, ez dira inoiz errazak izaten, eta buelta honek izan du, bai, erraza ez izateko motiborik: Josu Abalia lagun minaren heriotza. Honetaz ere luze idatz nezake, baina nahiago izaten dut, dagoen tokian dagoela, berari zuzenean idatzi.

Horrez gain, lana egin nahi eta ezinean nabilkizue orain, langabezian, inurri izan nahi eta ezin. Niagarako ur-jauzietara joan behako dut akaso pixa egitera.